



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteazkena  
2009-06-03**

VII.URTEA 1.718.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

**EDURNE PASABAN** MENDIZALEA

## «Igoera hasi baino lehen, banekien K2 bezain gogorra izango zela»

**TOLOSA** 12. zortzimilakoa izan da Kangchenjunga tolosarrarentzat; dagoeneko Shisha Pangma du buruan

**ASIER IZAGIRRE** Espedizioan izan da Pasabaneekin batera; «Asier oso gogorra da, primeran egin du bere lana», dio 4-5



L.TERRADILLOS

## 'Lagunbusa' jarriko dute martxan eskolara joateko

**TOLOSA** Ingurumenaren Egunaren harira antolatu duten Aste Berdean mugikortasuna landuko da 7

**Andoni Iturzaetak** ildo kritikoarekin batera EA utzi du

**TOLOSA** Gipuzkoan hamabost lagunek sinatu dute agiria 6

'Uda kanpaina'-n parte hartzeko aukera zabalik dago dagoeneko

**ALEGIA** Guztira sei jarduera eskainiko dituzte udako 6

**Asteasu-Alegiako taldea, Eskolarteko Bertsolari Txapelketako irabazlea**

**TOLOSALDEA** Ane Labaka, berriz, bigarren izan zen banakakoen mailan 2

**Diseñu**  
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA  
PUBLIZITATE GRAFIKAN  
TITULAZIO OFIZIALA - IKASTETXE PUBLIKOAN - PRAKTIKAK LANOKIAN  
Izen-emateak Ekainaren 2tik 7ra

IES Uhandizaga-Porriñalde 894  
Felipe IV, 1A, 20011 Donostia  
ussodizaga.arre@gmail.com  
tel 943454366

ESKUALDEKO IKASITZA  
INSTITUTUA

**Diseño**  
GRÁFICO  
INSTITUTUA

**DISEINU GRAFIKO** eta sormenean  
oinarritutako heziketa  
Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak

**ceinpro**  
TITULAZIO OFIZIALAK  
Nazioarteko lehiaketak  
praktikak atzerrian

IRUDIZTAPENA . KARTELGINTZA . PUBLIZITATEA .  
ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . SERIGRAFIA  
WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA

www.ceinpro.es  
INFORMAZIOA 943 310 873

Herriz Pasaletxea 95 • 20006 Donostia • Gipuzkoa • Faxa 943 510 876

**Laburrak****Etzi egingo dute ez ohiko bilkura, 18:00etan**

**AMEZKETA** • Etzi, ostirala, Amezketan ez ohiko bilkura egingo dute bertan gai bakar bat jorratzeko: 18:00etan izango da kasu honetan. Bertan, Amezketako Hirigintza Plan Orokorreko AIU9 Ola Zuzokoa 9.1 eta 9.2 Sektorerei dagokien Aldaketa Puntualaren Formulazioa eta Aurrerakin dokumentua onartzea egingo dute.

**Etzi Alegiako Dantza Taldeak saioa eskainiko du**

**ALEGIA** • Alegiako Kultur Etxean dantza emanaldia izango da, etzi. Kasu honetan, Alegiako Dantza Taldeak egingo du saioa, ikasturtearen amaiera dela kontuan hartuta. Kultur Etxeko areto nagusian eskainiko dute emanaldia, 20:00etan hasita, baina 19:00etan, luntxa prestatuko dute dantza taldekoek.

**Asteburuan Pirinioetara irteera egingo du Aizkardik**

**VILLABONA** • Ekainaren 6rako eta 7rako, Pirinioetara irteera antolatuta du Aizkardi mendikarteak (Panticosa - Pondiellos - Infierno (3.082 m) - Respomuso - Gran Facha (3.005 m) - Ibones del Pecioco - Panticosa). Izen ematea zabaldu dute eta elkartearen bertan egin daiteke, (649 717182).

**Behar-Zanak asteburuan 63. urteurrena ospatuko du**

**VILLABONA** • Villabonako Behar-Zana elkarteak urtero bezala, elkarteak jaia ospatuko du hilaren 6an eta 7an. Larunbatean danborrada izango da eta bertan parte hartu nahi duenak izena emateko aukera gaur arte izango du. Entsegua, berriz, bihar izango da 19:30ean elkartean. 20:00etako afariko txartelak erosteko aukera dago jadanik.

**Haur liburutegian bihar ipuinak kontatuko dituzte**

**TOLOSA** • Miriam Mendoza ipuin-kontalaria Tolosako Errota haur liburutegian izango da bihar (osteguna) 18:00etatik aurrera ipuinak kontatzen. Kasu honetan, hiru eta sei urte bitarteko haurrei eta hauen gurasoei zuzenduriko emanaldia izango da. Beraz, bihar, zita dute txikienek.

**@ Eztabaidak.** Puri-purian eta zuzenean Tolosaldeari eragingo dion gaiarekin gatzokizuz oraingoan eztabaiak atalean: Gazumen parke eoliko egiteko proiektua aurrera doa. Zer iritzi duzu honi buruz? Alde zaude? Ez duzu proiektu hau babesten? Zergatik? Sar zaitez eta ikus itzazu beste irakurleek pentsatzen dutena.

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

# Eskolarteko Bertsolari Txapelketako irabazlea Asteasu-Alegia izan da

**Bertsolaritza**

Banakakoen mailan, berriz, Ane Labakak bigarren egin zuen zortziren artean, Amaia Iturriotzen atzetik.

**ERREDAKZIOA**

Gipuzkoako Eskolarteko 29. Bertsolari Txapelketako finala jokatu zuten pasa den ostiralean, Donostian. Txikien mailan Asteasu-Alegiako taldeko hiru mutikoez jantzi zuten txapela eta Amaia Agirre irakaslea eskertu zuen Haritz Mujikak. Bera joango da Gipuzkoako ordezkari Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketara Urtetxuko Mikel Iturriotzekin batera.

Gaztetxoak, 14 urtera artekoak, igo ziren lehenengo taula gainera bat-batean bertsotan egitera. Andoni Egañagidari zutela Zumarraga-Urtetxuko taldea, Goierriko taldea, Asteasu-Alegiako talde irabazlea (Aratz Irazustabarrena eta Alex Goikoetxea alegiarrak eta Haritz Mujika asteasuarra) eta Hernaniko taldea igo ziren taula gainera.

Aurrez prestatutako agurra kantatu zuen lehenengo talde bakoitzak doinu ezagunak erabiliz: Asteasu-Alegiakoek *Sopa de Caracas* doinu jarri zuten.

**Txikien ondotik, gazteak**

Txikien saioa amaituta helduek hartu zieten taula gainean erreleboa: Manex Mantxolak, Lasarteko Ane Labakak, Amasako Oihana



Irudian, Iker Iriarte, Haritz Mujika, Amaia Agirre, Aratz Irazustabarrena eta Alex Goikoetxea. HITZA

Iguaranez, Alegiako Imanol Irazustabarrenak eta Donostiako Asier Azpirozek besteak beste. Guztira zortzi gaztetxo aritu ziren.

Agurten ostean lau oinak emandako kantatu zuten lehenengo eta ofiziok segidan binaka. Umoretik hartu zuten batzuk eta seriotik besteek, gaiaren arabera, noski. Manex Mantxola eta Ane Labakak sexu heziketako eskoletan umortsi ibili ziren. Krisiak ere izan zuten

tokia diru eta lan kontuetaz ibili baitziren.

Bakarkako lanari ekin zioten gero puntuari erantzunez lehenengo eta gaiari gero. Ane Labakak bere burua irudikatu zuen saskibaloijokalaririk gisa, ikurrina eskutan.

Bat-bateko lanak amaituta bertso paperetako sariak banatu zituzten eta maila bakoitzeko txapelkunek baita idatzitako bertso bana abestu ere.

Nagusietan Amaia Iturriotz izan zen txapeldun eta Ane Labakak bigarrena ere Amaia Agirre irakaslearekin ez ezik gertuko maitekin ere gogoratu zen. Horiek biak ere Euskal Herriko finalean ariko dira.

Oro har «giro onean» eta bertsolarien ikaskideak, bertso eskolako lagunak eta senideak entzule zirela «modu politean» amaitu zen Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa.

## Udarekin batera iritsi da 'Uda Kanpaina'

**Alegia** • Aurten ekaina bukaeran eta uztaila hasiera bitartean sei jardura praktika ditzakete gazteek.

**ERREDAKZIOA**

Uda gertu dugu eta Alegiako Udalak dagoeneko garai horretan eskaintzen dituen ekintzak antolatu eta aurkeztu ditu.

Ludoteka 2 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago eta bi txanda eskainiko dituzte: lehengo hilaren 29tik uztailaren 10era (35 euro) eta bigarrena uztailaren 13tik 24era (29 euro). Bietan ere, 10:00etatik 13:00etara izango da.

Ludotekan haur eta gaztetxoak joateko aurretik izena eman behar dute, hilaren 10era arte, Kultur eta Kirol Etxean.

Bestetik, *Uda Kanpaina* 8-16 urte bitarteko haur eta gazteei zu-



Alegiak inguru egokia du piraguismoa egiteko. N. LATABURU

zendua dago eta esgriman, batuan, piraguismoan, orientazio lasterketan, mendiko bizikletan edota gimnastika erritmikoan parte

hartzeko aukera dago aurten. Guztiak ekaina bukaeran eta uztailaren zehar egiteko dira.

Hauetan parte hartzeko izena

**» UDAKO KANPAINA**

- **Esgrima.** Ekainak 29tik uztailak 3ra bitarte, 10:30etik 12:30era. 15 euro.
- **Batua.** Ekainak 29tik uztailak 24era, 10:00etatik 11:00etara, 15 euro.
- **Piraguismoa.** Uztailak 20tik 25era. 11:30-13:00. 20 euro.
- **Orientazio lasterketa.** Uztailak 27tik 30era. 10:00etatik 13:00etara. 15 euro.
- **Mendiko bizikleta.** Uztailaren 6tik 10era eta 13an eta 15ean. 10:00-12:00. 15 euro.
- **Gimnastika erritmikoa.** Uztailaren 6tik 10era, 11:30etik 13:00etara. 15 euro.

eman behar da, hilaren 10 baino lehen Inaxio Begiristain kultur eta kirol etxean.

Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 65 46 98 telefono zenbakian edo Kultur Etxean lor daitezke.

# Herritarrek historiari errepassoa egingo diote beraiek sortutako saioarekin

**Anoeta** » Ikusmina sortu du etzi, 22:00etan, kiroldegian egingo duten 'Memoria dantzan' emanaldiak.

IMANOL GARCIA

Memoria dantzan emanaldia presatatu dute anoetarrek etzirako, hilak 5, 22:00etan kiroldegian. Memoria historikoaren berri ematea izan da emanaldiaren abiapuntua. «Anoetarren memoria kolektiboren berreraikitze bat izango da», dio koordintzaile lanetan ari den Mikel Errazkinek. Horretarako Anoetan azken 150 urtetan aldaketa sozialak gauzatu diren bost garai hartu dituzte eta garai bakoitza sorkuntza artistiko ezberdinekin erakutsiko dute.

Lehenengo garaia XIX. mendean bukaera da. Ekonomia nekazaritzan oinarritzen zen eta Anoeta «oso tradizionala zen, oso karlista», gogoratzen du Errazkinek. Garai horretan ideia liberalak sartzen hasi ziren gizartean. Garai hori eta aldaketa horiek film labur baten bidez erakutsiko dituzte. Txuribeltzean eta jatorrizko musikarekin egin dute. 1872. urtean, Bigarren Karlistaldian Anoetan izandako gertaera historiko batek abiatuko dira eta horretarako Santa Kruz apaizaren memoria idatziak erabili dituzte.

Hartu duten bigarren garaia Gerra Zibila izan da. Garai horretan gerra-haurren gaia landuko dute. Gai horrek beste agerraldiak harilkatuko ditu. «Azken 130 urtetan herria gehien markatu zuen gertaera dela ikusi dugun», azaldu du ko-



Anoetako Ikastolako ikasleek adinekoen lekukotasuna jasotzen aritu dira. HITZA

ordinatzaileak. Monologo baten bidez erakutsiko dute garai hori emanaldian.

## Lekukotasuna biltzen

Hurrengo geldialdia XX. mendeko 50. hamarkada izango da. SEME (Europako Memoriak Elkarbanatzen) egitasmoaren baitan parte hartu du Aranzadi elkarteak eta Anoetako Ikastolak, Europako beste herrialde batzuekin batera.

Ikastolako DBHko 4. mailakoek lekukotasunak bildu dituzte, Anoeta eta Irura 40. eta 50. hamarkadan nolakoak ziren jasotzeko. Sei talde osatu dituzte eta talde bakoitzak garai hori erakusten duen arlo bat jorratu dute. Ikasleek lekukotasun horiek osatu dituzte egindako dokumentazio historikoaren bilketarekin eta horrekin narrazio digitalak egin dituzte. Ostiraleko

emanaldian, ikasleek egindako lanaren aukeraketa bat erakutsiko dute. Lan horren guztiaren emaitza hilaren 19an ikusiko da Iruran.

Laugarren garaia 70. hamarkada izango da. Aldi horretan herri mugimendua aktibatu zen. «Frankismoaren azken urteetan herritarrek elkartu ziren kolektibo bezala zituzten beharriak erantzuteko», azaltzen du Errazkinek. Bertso-antzerki baten bitartez erakutsiko dute garai hori. Horretarako dokumentazio bilketa bat egin dute hori bizitu izan zuten guraso eta garai hartako gazteei eztabaida taldeen bidez informazioa jasoz. Bertso-antzerki horretan ere parte hartuko dute musika eskolako kantariak eta musikariak.

Azkeneko egonaldian etorkizunari begira jarriko dira. «Alegia, dena ez da atzera begiratzea, bizi

nahi duen herri bat da Anoeta, dinamikoa», dio Errazkinek. Dantza garaikideko saio batez irudikatuko dute etorkizuna.

## 125 herritar parte hartzen

Agerraldi guztiak herritarren artean egindakoa dira, herritarren sorkuntza lana izan da. «Denera, modu batera edo bestera, 125 herritarrek parte hartu dute», azaltzen du emanaldiaren koordintzaileak. «Hasi lekukotasuna eman dutenek, film laburra grabatutakoek, bertsoak idatzi dituztenek... Helburua hori da: herritarren ahotsa sorkuntza artistiko ezberdinekin dinamizatzea eta agerian jartzea ordu bete pasako ekitaldi batean».

Anoeta «sormen handiko herri bat da», gaineratzen du Errazkinek eta «horrelako parte-hartze

espazioak bultzatu izan direnean ondo erantzuten duena». Gauza solteak egin beharrean, denon artean komunean izango den egitasmo batean egiten saiatu dira. «Azken batean memoria puzzle txikiz osatutako mosaiko handi bat da. Oso desberdina da sorkuntza ezberdinak modu isolatu batean gauzatu edo dena lotuta gauzatu eta gainera herri baten iraganarekin

**Film laburra, monologia, narrazio digitala, bertso-antzerkia eta dantza garaikidea izango dira**

**«Konturatu gara kultur sorkuntzan jende oso ona dugula herrian», dio Mikel Errazkinek**

loturik. Azken batean, memoria herritarren artean eraikitzen da. Gaia motibagarria izan da eta herritarrek ondo erantzun dute».

Parte-hartzaileak adin guztiakokoak dira: lekukotasuna eman duten adinekoetatik hasi eta film laburrean parte hartu duen jaioberrira arte. «Hain justu, eszena bat grabatzeko haurra noiz jaio zain izan gara», gogoratzen du Errazkinek. «Herritarren artean jende ezberdinak parte hartu du ere. Jende bat ohitua dago herri dinamizketan, baina saikera berezia izan da jende gehiagok parte hartzeko eta ahalik eta sinergia gehien hedatzeko. Bagenekien kultur sorkuntzan herriak funtzionatzen zuela, baina konturatu gara oso jende ona dugula, jende iaioa dagoela eta ondo erantzun duena gainera».

Emanaldiak ikusmina ere sortu du, noski, hainbat herritarrek parte hartu duelako eta horrek ere familiaritateak, adiskideak eta orokorrean herriak animatzen dituelako.



## Artecan mobilizazioek jarraitzen dute

**VILLABONA** » Arteca Caucho Metal SA enpresan mobilizazioekin jarraitzen dute langileek. Bi orduko lanbuzteak egin zituzten pasa den maiatzaren 26tik 29ra, eta herenegunetik enpresaren aurrean kanpaldian daude. Atzo enpresarekin bilera bat izan zuen

Enpresa Batzordeak eta gaur Lan Delegaritzarekin izango du beste bilera bat. Enpresak kaleratzean asmoarekin jarraitzen bada bilera hauen ostean ostegunetik aurrera berriz ere bi orduko lanbuzteekin hastea aurreikusten dute langileek. HITZA

## Laburrak

### Aste Berdea Irura, Zizurkil, Berastegi eta Amezketan

**INGURUMENA** » Aste Berdearen baitan eskualdeko hainbat herritan ekitaldiak izango dira gaur: Iruran Eskola zaharreko aretoan aromaterapia ikastaroa dute 17:30ean eta ordu berdinean mural pintaketa ikastolako haurrekin. Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean hegaztien inguruko ikastaroa, 19:00etan. Berastegin, 20:00etan, eskolako aretoan konpostaiari buruzko ikastaroa. Halaber, Amezketako Udalak datorren ostiralean ospatuko den Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren inguruan hainbat ekitaldi antolatuta ditu: esaterako, gaur, 18:00etatik aurrera zinekluba. Umeei zuzenduriko *El lince perdido* animaziozko luzemetraia eskainiko dute erabilera anitzeko gelan.

### 'Mihiluze' saiora joateko autobusa bihar, 09:45ean

**ANOETA** » Alkartasuna biltokitik azaldu dutenez, ETBko *Mihiluze* saiora joateko eguna bihar izango da. Jendea jasotzeko autobusa 09:45ean aterako da herriko plaza-tik. *Mihiluze* programara ikusentzule moduan joango dira eta bi saio ikusteko aukera izango dituzte. Bi saio horien artean hamaiketako emango diete.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Taxi lizentzia.** Tolosako taxi lizentzia saltzen dut. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 616 542 960 zenbakira.







## Motorzaleen asteburu «bikaina»

**IBARRA** ■ Ibarra Langostino Moto Elkarteak kideek esandakoaren arabera, 45 bat pertsonen hartu zuten parte pasa berri den asteburu pasan. Nafarroako Acedo herriko kanpingean eman zuten larunbateko

gaua eta «behingoz» eguraldi bikaina izan zuten motorzaleek. Jada hasi dira datorren irteera antolatzen, hilaren 28an izango dena, eta uztailaren 4 eta 5rako, gainera, Langostino Moto Festa antolatuta dute. **HITZA**

## Suteentzako doako sistema adinekoentzat

**Ibarra** ■ 99.992 euro bideratuko dituzte adineko pertsonen suteak egiteko su-detekttagailuak instalatzeko.

### ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak suteak antzemateko doako zerbitzu bat eskainiko die herriko hirugarren adineko pertsonen. Ekimen hau kudeatu ahal izateko 2011. urtera arte egokitu den aurrekontua 99.992 eurokoa da eta dagoeneko lehiaketa deialdia egin dute esleipenerako.

Txelo Romeo Ibarra alkatearen hitzetan, neurri honen helburua «Ibarrako gizartearen ongizate maila handitzea da eta 65 urte edo gehiagoko pertsonen kalitateko zerbitzu bat eskaintzea, gizarte talde ahulagoa direlako».

Lehentasunetako bat gizarte talde honen segurtasuna zaintzea da eta horregatik, Udalak dohainik

eskainiko die etxeetako su-detekttagailuen instalazioa.

Horiek horrela, Udalak baimena eskatuko du teknikari batek 65 urte edo gehiago dituzten pertsonak bizi diren etxeak bisita ditzan. Behin baimena lortu ondoren, esleipendun enpresako profesionalak azterketa bat egingo du su-antzemateko zein baldintza dituen frogatzeko. Ondoren, txosten bat egingo du eta txosten hori etxekoiei emango die. Bertan, dituzten gabezia nagusiak zeintzuk diren eta nola ekidin daitezkeen azalduko diete.

«Familiak erabakiko du su-detekttagailua instalatu nahi duen edo ez», argitu du Udalak ohar baten bidez. Ipintzea erabakitzen badute, Udalak bere gain hartuko du detekttagailua ipintzeak duen kostu osoa etxeko segurtasuna bermatzeko. «Neurri honekin udal arduradunek istripu mota hau gertatzea ekidin nahi du ahal den heinean», argitu dute.

## Etzi hasiko dituzte Egialde bideko lanak

**Ibarra** ■ Ostiraletik aurrera ibilgailuak ezingo dira Leaburu hasieratik San Jose sarrerarainoko bidean ibili.

### ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak etzi, hilak 5, hasiko ditu Egialde bidea oinezkoentzat egokitze lanak.

Hori dela eta, «ibilgailu guztiak debekatuta izango dute eremu honetatik igarotzea, bidearen alboetan dauden baserrietako ibilgailuek izan ezik. Bizikletek eta oinezkoek, bestalde, bidea libre izango dute», argitu du Udalak.

Lanak, zehazki, Leaburuko sarreraren hasi eta San Joseko sarreraren amaiteko dira, izan ere erabilez publiko duen arren jabetza pribatuko den azalera da Udalaren hitzetan.

Ekintza honen helburua «trafikoa joan-etorri handia duen bide

## Ildo kritikoak EA utzi eta Alkarbide sortuko du

**Politika** ■ Gipuzkoako EAko zuzendaritzaren hamabost lagunek sinatu dute agiria, tartean Andoni Iturzaeta tolosarra dago.

### ERREDAKZIOA

Krisia gogorra zen Eusko Alkartasunako (EA) bi ildoen artean, eta kritikoei alderdia uztea erabaki dute. Atzo gauerdian jakinarazi zuten neurria, ohar baten bidez, euren Zarautzen (Gipuzkoa) bilera egin ostean. Gipuzkoako EAko zuzendaritzako hamabost lagunek sinatu dute oharra, tartean, Andoni Iturzaeta Tolosaldeko EAren ordezkariak. Haien ustez, sorrerako oinarrietatik aldendu egin da EA. Alderdia utzi dutenek «mugimendu subiranista demo-

kratikoak» baino nahiago dute EAJrekin koalizio «egonkorra».

Iturzaeta adierazitakoaren arabera, «banaketa modu naturalan gauzatu» da. Izan ere, «geroz eta argiago zegoen alderdiko norantza zein den; Azpeitiako mozioa, greba orokorrarekin gertatu dena...». «Azken erabakiek eragin zuzena izan dute jende askorengan, nahiz eta egia den barne egoera ez zela ona. Egia da ere azken hauteskundeetan bakarrik ezin garela joan ondorioztatu dela. Guk gure burua beste abertzaletasun horren sendotzean ikusten dugu». «Ilusioa piztuko dugu», gaineratu du. «Urte bukaera bitartean forma emango diogu alderdiari eta Gipuzkoan abertzaletasun hori bidea emango dugu», esan du.

Zuzendaritza nazionalak gaur plazaratuko du bere balorazioa.

## Laburrak

### Zaldi Eguneko bazkarirako txartelak salgai

**LEABURU** ■ Leaburuko herritar talde batek II. Zaldi Eguna antolatuta du larunbaterako, hilak 6. Egunean zehar izango diren ekitaldien artean bazkaria ere izango da eta horregatik jakinarazi nahi dute bazkarirako tiketak erosteko azken eguna gaurkoa izango dela. Bazkaria herriko frontoian izango da, tiaketek 25 euro balio dute eta Astigarragako Tranko dendan, Leaburuko Ostatu tabernan, Leitzako Adur tabernan eta Lurtzungo Albaitacenen eskuratu daitezke.

### Alurr Dantza Taldea Balmasedan izango da etzi

**IBARRA** ■ Alurr Dantza Taldekoek euren azken ikuskizuna, *Sua*, eskainiko dute larunbat honetan 22:00etan Balmasedan (Bizkaia). Emanaldia plazan izango da III. Bizkaiko Erradoien Egunaren baitan. Balmasedakoa dantzariak *Sua* ikuskizuna eskaintzen duten hirugarren aldia izango da, aurrekoak Tolosan eta Ibarra izan ziren.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko **HITZA**n jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
**DOAN** agertuko da

**HITZA**k Gipuzkoan **120.000** irakurle

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



## Palencian ibili dira Alpino Uzturrekoak

**KIROLA** ■ Aurreko asteburuan Alpi-  
no Uzturreko mendizale batzuk  
Palenciako mendietan izan ziren.  
Hau, legorretarak urteko egita-  
rauz kanpo antolatutako irteera  
bat izan zen. Larunbatean Curava-  
cas (2.520 m) eta igandean Val-  
decebollas (2.139 m) mendiak igo  
zituzten, Aberjaleko albergean lo-  
eginez eta Cervera de Pisuerga eta  
Aguilar de Campoo bisitatzeko  
tartea ere hartu zutelarik. Egutegi-  
ko hurrengo irteera hilaren 14an  
izango da. Hala, igande horretan  
Larraonatik Kanpezura zeharkal-  
dia egiteko asmoa dute. Interesa-  
tuek elkartean eman dezakete ize-  
na edo 943 65 27 89ra deituta. i.s.

## Eskolara oinez joateko 'Lagunbusa' martxan izango da datorren astean

**Ingurumena** ■ Aste Berdea  
ospatuko dute datozen  
egunetan, eta ikastetxeek,  
datorren ikasturtera begira,  
ekimen hau abiatu dute.

### ERREDAKZIOA

Hambosgarren aldiz, hemen da  
Aste Berdea. Ekainaren 5a, Nazio-  
en Arteko Ingurumen Eguna da,  
eta horen harira antolatzen dute  
elkarlanean ekimen hau, Tolosal-  
deko Ingurumen Zentroak, Uda-  
lak eta hiriko ikastetxeek. PNU-  
MAk proposatuta, *Aldaketa kli-  
matikoaren aurka elkartuta* da  
aurtengo leloa.

Aurten landuko duten gai nagu-  
sietako bat mugikortasunarena da.  
Urteak daramatate, hau jasanga-  
rriagoa izan dadin lan egiten. Ho-  
ri dela eta, hainbat azterketa buru-  
tu dituzte, esaterako, gaur egun,  
eskolara haurrak zein garraio  
erabiliz joaten diren ikusi. Baita,  
haurtxo hauen aiton-amonak bere  
garaian nola joaten ziren galdetu  
ere.



Atzo aurkeztu zuten Aste Berdea, Udalekoek, ikastetxeetako zuzendariak eta Ingurumen Zentrukoek. E. EZEIZA

### 'Eskolara oinez' programa

Datorren ikasturtera begira Las-  
korain ikastolakoek eta Samanie-  
go ikastetxeek *Eskolara oinez*  
ekimen berria jarri dute martxan.  
Lehendabiziko frogatik datorren as-  
tean egingo dute, hilaren 8tik 12ra.  
Amaitzear dagoen ikasturteari

hasiera eman ziotenean, Tolosal-  
deko Ingurumen Zentrukoak eta  
Udalekoak ikastetxeekin lanean  
hasi ziren, proiektu hau aurrera  
eramateko. Hala, beste herri ba-  
tzuetakako esperientziak ikusiz eta  
abar, batzorde bat osatu zuten  
proiektua lantzeko. Hauek, ibilbi-

de batzuk zehaztu zituzten, puntu  
arrakatsuenak izendatu, geldituene-  
ak,...

*Lagunbusa* jarri diote izena eki-  
menari, eta honekin, haurrak ikas-  
tetxera oinez joatea bultzatu nahi  
dute, gurasoen laguntzarik gabe.  
Bestalde, harremanak egiteko eta

ongi pasatzeko modugisa ere ikus-  
ten dute Laskorain eta Samaniego  
ikastetxeetako zuzendariak *La-  
gunbusa*.

Auto eta autobusen erabilera  
gutxitzea nahi dute ikastetxeetako  
arduradunek eta Udal ordezkari-  
ek. Honek ekarriko lituzkeen  
onurekin, hala nola, kutsadura gu-  
txiago sortzearena eta zenbait is-  
tripu ekiditearena. Bestalde,  
*Lagunbusa*rekin, ikasleen autono-  
mia eta ardura sustatzea espero  
dute.

Egitasmo honen arabera, ordu-  
tegi bat eta ibilbide bat finkatzen  
da, eta haurrak, elkarrekin, bi  
hauek errespetatuz, eskolara joan-  
go dira, eta handik itzuli. Gaztetxo-  
ekin batera, biheldu laguntzaile jo-  
ango dira, bata aurretik, eta bestea  
atzetik. Honek, *Lagunbusa*rekin joan  
behar duten ikasleen zerrenda, eta  
bakoitzaren datuak izango ditu,  
nolabaiteko kontrola eman ahal  
izan dezan. Bestalde, ibilbidean  
zehar, beste laguntzaile batzuk ere  
izango dira, dendari, tabernari...  
zerbait gertatuz gero, hauengana  
jo ahal izateko gaztetxoek nahiz  
arduradunek.

Ikastetxeetan bertan zabalduko  
dute proiektuaren inguruko infor-  
mazioa, eta parte hartu nahi dute-  
nek izena eman beharko dute. Ho-  
nenbestez, datorren urtean mar-  
txan izango da hau.

### » ASTE BERDEA

#### Ekainak 5, ostirala

■ **12:30ean.** San Blas Garbigunea-  
ren inaugurazioa. Hondakinak gai-  
ka jasotzen dituen gunea da hau.  
Ekainaren 8tik aurrera eraman  
daitezke hondakinak San Blaseko  
garbigunera. Tolosaldeko Manko-  
munitateak erabilera sustatzeko  
kanpaina martxan jarriko du.

#### Ekainak 7, igandea

■ **X. Uzturre igoera.** 09:30ean  
abiatuko dira Santa Klaratik eta  
10:00etan Izaskundik. Tontorre-

an, hamaiketako egingo dute eta  
musika izango da.

■ **11:30ean.** Uzturre gainean, Tolo-  
sako Musika bandak, tronpeta tal-  
deak eta Gure Txoko elkarteko  
abesbatzak Uzturre pieza jo eta  
abestuko dute.

■ **17:00etan.** Leidor zineman, hau-  
rentzako film bat izango da ikus-  
gai. *Ponyo itsaslabarrean* hain zu-  
zen ere.


#### Aste guztian zehar

■ **Bandera berdearen ibilaldia.**

Ekimen guztien lekukoa izango da  
aurten Aste Berdeko bandera, al-  
debatetik bestera ekintza guztiak  
Aste Berdearekin identifikatuko  
duena. Ekintza bakoitzaren partai-  
deak mugituko dute, hau da, Uztu-  
rrera igo, eskolako bideak egin eta  
Leidorren sarreraren egongo da.

#### Ekainaren 8tik 12ra

■ **'Eskolara oinez noa' programa.**  
Oinez igo ahal izango dira ikasleak  
aste guztian zehar beraien ikaste-  
txetara.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



25°  
12°

GOIZA EGUZKIA  
ARRATS. EGUZKIA  
BEROENA 22°  
HOTZENA 12°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetaldia:** 687 410 022. anoetaldia@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Kirola

■ **Tolosa.** Tatxeras (Zuriza) - Atxar de Alano (2.099 m) - Peñaforca (2.391 m) - Lenito (2.339 m) - Siresa irteera antolatatu du Aizkardi mendi elkarteak 14rako. Izen-ematea, elkarteak (649 717182).  
■ **Villabona.** Ekainaren 6 eta 7rako Panticosa - Pondiellos - Infierno (3.082 m) - Respomuso - Gran Facha (3.005 m) - Ibones del Pecico - Panticosa irteera antolatatu du Aizkardi mendi elkarteak. Izen-ematea, elkarteak (649 717182).

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Sanjoanetakoa Koadrila Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude Orbela tabernan ostiralean 19:00etatik 21:00etara eta larunbatean 12:00etatik 14:00etara.

### Irteerak

■ **Tolosa.** Ekainaren 6rako Nafarroako Astizen dagoen Mendukilo kobazulora eta Iruñera irteera antolatatu du Beti Gazte jubilatu elkarteak. Izena elkartearen lokalean eman daiteke, ostegun edo ostiralean, 17:00etatik 20:00etara (33 euro). Informazioa, 653 747192.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Ollarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

**Gizartea** » Behor batek tiratutako gurdi-etxean bidaia-tuz, Portugalera doan familia britaniar batek atsedena hartu du gurean.

### IMANOL GARCIA

Britaniako familia batek bidaia bitxia hasi zuen orain urte eta hilabete bat: herritik atera eta Portugalen dagoen Izarren Mendilerroa. Taratean Galiziatik igaroko dira, Donejakue bidea eginez. Bidaia-aren berezitasuna behor batek tiratzen duen gurdi batean mugitzen direla da.

Sylvain eta Laure Bigot senar-emazteak, lau urte eta erdiko Ambré alaba eta hiru urteko Aime semea doazte gurdian. Behorrek *Precieuse (Xarman)* izena du eta txakur bat ere badute, *Oustine* izenekoa. Bi egun eman dituzte Anoeta eta Tolosaren arteko industrialdearen ondoan, Hernialdera joateko bidegurutzetik gertu.

Izarren Mendilerroa dute jomuga. Bertan topatu nahi dute bizitzeko lurra. «Modu soilean bizi nahi dugu», dio. «Behorarekin lan eginez barazki eta fruta ekoiztu nahi dugu». Ez dira inoiz izan Portugalen, baina inguruko jendeak leku horri buruz hitz egin die. «Leku askotara bidaia-tu dugu», azaltzen du Sylvainek. «Emaztea eta biok ezagutu ginenean Portugalera joan nahi genuen. Azkenean auto-stop eginez Afrikaraino



Familia bidaia-riaren kideak, behorra eta etxe bezala duten gurdia ondoan dituela. I. GARCIA

joan ginen, Gineara, Portugaletik igarogabe».

Afrikako herrialde horretan bi urte egin zituzten eta bertan ikasi zuten zer egin nahi zuten bizitzan: «Ahal dugun gehien gure kasa moldatu nahi dugu». Afrikatik itzuli zirenean jaio zen bigarren haurra eta garbi zuten bizi nahi zutela zaldiaren erri-tmoan eta etxera bere atzean jarri zuten. «Ez genuen ezagutzen nola manejatu behar diren eta akats batzuk egin ditugu, baina ikasi dugu ere».

Hasieraz ez zen erraza izan, bai-

na orain oso lasai dabilta: «Jendek oso ondo hartzen gaitu». Hain justu, Hernialdeko familia baten etxean bazkaltzen izan dira hementegon direnean. Bestalde, Laureren lehengusu bat autokarabana batekin beraiekin bidaia-tzen ari da egunotan.

Donejakue bidea beraiei ondo dator kiela dio. «Nahiko laua da eta ibaiekin ondoan ditu», dio. Galizian negua igaro nahi dute, janariaren truke lan eginez, eta gero kostalde-tik Portugalera pasatu. Ez dakite noiz iritsiko diren Portugalera, bai-

na ez die hainbeste axola. Egunerokotasunean bizi dira, gurdian marratzuta duten *Carpe Diem* esaldiak azaltzen duen bezala.

Mugitzen diren bakoitzaren kilometro gutxi egiten dituzte, hamabost inguru. Astelehenean iritsi ziren eskualdera eta atzo goizean abiatu ziren. Hiru egun jarraian egiten dituzte bidaia-tzen eta tartean atsedean hartzen dute egun bat, bi edo hiru. Behorarekin eta bere gurdi-etxearekin bidaia jarraitu dute eta mezu bat utzi: egunerokotasunean bizi zitezaz gozatu behar dela.

**aldaketa**  
POLITIKO ETA SOZIALAREN ALDE

**bozkatu**  
www.iniciativainternacionalista.org

**iniciativa**  
**INTERNACIONALISTA**

**gaur** • **BILBO** Hitzaldia 19:00 Arrupe etxean (Antonio Sarda hautagaia eta Arnaldo Otegi gonbidatua)

• **LAUDIO** Kotxe karabana 18:00 + hitzaldia Amurrioko plazan • **AMURRIOA** Kotxe karabana 18:00 + hitzaldia plazan • **LIZARRA** Ekitaldia 20:00 kontsektorioan • **TXANTREA** Ekitaldia 19:30 • **EIBAR** Propaganda banaketa merkadilloan • **SORALUZE** Propaganda banaketa merkadilloan

**bihar** • **BILLABONA** Ekitaldi kulturala 18:00 Gurea antzokian

• **TAFALLA** Ekitaldia 19:30 Kube diskotekan • **IRURTZUN** Hitzaldia 19:15 Udaletxean • **ELGOIBAR** Propaganda banaketa merkadilloan • **PASAI ANTIXO** Kotxe karabana 19:30 Luzuriagatik • **ORERETA** Kotxe karabana 19:00 Masti Loiditik • **LEKEITIO** Ekitaldia 19:30 Independentzia plazan • **ELORRIO** Ekitaldia 19:30 Arriola aretoan • **GALDAKAO** Ekitaldia 20:00 Santi Brouard plazan • **BILBO** Alde zaharrahitzaldia • **BILBO ZAHARRAN** Aferia

**etzi** • **GASTEIZ** Kanpaina itxiera 19:00 Guridi zinemak

• **LEITZA** Ekitaldia 20:00 Plazan • **ALTSASU** Ekitaldia 19:00 • **UHARTE** Ekitaldia 19:30 Plazan • **CORTES** Ekitaldia 20:00 Kultur etxean • **IRUÑEA** Triki poteoa eta aferia 20:30 • **AIBAR** Hitzaldia 19:00 Eskoletan • **AGOITZ** Hitzaldia 20:00 Aurelio Leon kultur gelan • **MUTRIKU** Ekitaldia 20:00 Beheko plazan • **DEBA** Ekitaldia 20:30 Plazan. Ondoren aferia Arranon • **SORALUZE** Ekitaldia 20:00 Plaza berrian • **EIBAR** Ekitaldia 19:00 Untzaga plazan • **BILBO** Ekitaldia 19:00 Arriaga plazan • **ASTIGARRAGA** Sardinada 20:30 • **HONDARRIBIA** Ekitaldia 20:00 Zabalaren txokotan • **IRUN** Ekitaldia 20:00 San Juan Plazan • **ORERETA** Ekitaldia eta aferia 20:00 Herriko plazan • **MAKIRRIAIN** Ekitaldia 21:00 Herriko plazan • **LEIOA** Ekitaldia 20:00 Plaza gorrian • **SESTAO** Jaialdia 18:00-tik aurrera • **SANTURTZI** Parrillada • **ASTRABUDUA** Hitzaldia 20:00 Josu Muruetan • **DURANGO** Aferia • **IURRETA** Aferia • **LARRABETZU** Parrillada • **AULESTI** Aferia • **ZALDIBAR** Aferia • **OTXANDIO** Aferia • **BERRITXU** Bertso aferia 19:00 • **URDUNA** Hitzaldia 19:30 Aduana Hotlean • **ERROMO** Ekitaldia 20:00 Santa Eujenian • **ABANTO** Ekitaldia 19:30 Dolores Ibarriuri parkean